

Teknika eta kultura

Teknikaren barrutian daramagu bizitza. Gizakia beti izan da teknika-egile; gizakiaren betiko ametsa izan da, bere inguruak luzatzen zizkion kateak austea. Beldurgarri zitzaizkion itsasoa, ekaizta, basoa, erialdia eta beste amaita gauza. Gaurko gizakiak ordea, guzi oiek menpera dezakela sinesten du. Teknikarentzat izkurturik ez dala iruditzen zaigu.

Inoiz ez bezala menperatu du gizakiak bere ingurua. Izadia, tresna bat zaio; arrigarrikiriki eta ezkurturik ez duen tresna bat.

Antzina batean, politikoak eta artistak ohi zituzten lehen aukiak erritarren artean. Gaur aldez, teknikoak dira aien leku. Erri baten balioa neurterakoan, nahiz ekonomian nahiz politikan, teknikoak dute lehen garrantzia.

Munduko aberriak elkarrekin neuritzen ditugunean ere, duten teknika aurrerapenaren arabera sailkatzen ditugu. Orrek balio du nuntai. Bost afora digu aberri "aurreratu" ortako gizakiak gizatasunaren aberatsago diren ede ez; indarririk gehiena duena ipintzen dugu lehen mailan, eta askotan eredu bezala gainera.

Ez goaz teknika baztertu nahieko burrukan astera. Gizakiari berez dagokio teknikoak izatea. Eta gaurko teknika aurrerapenak mesede asko ekarri dizkio gaurko gizakiari: lan-orduak gutxitzea, bizitza orosoagoa, siniskeriak eta sorginkeriak baztertzea, eta abar. Mesede auen albona beste amaita kalte aipatu dezakegu: pertsonak pilloan eta anonimotean bizi beharra, gizakia bere funtzioetik eguztzea, gizakiaren berezko ahaleginak kanpotik zuzentzea propagandaren indarrez eta abar.

—OO—

Beharrezko diren zenbait puntu alde batera utzirik, kultura-errikoak aztertu nahi ditugu. Izan ere gure kultura teknikoak dala esaten ari gura bazter guzietan, eta esatera orain esanahia mamitu beharrean gaudea deritzagu.

Guk ba dakigu teknika berak ekarri duen "kultura" bat ba dala. Teknika aurrera egingo badu, beharrezko ditugu ondo preparatutako mutilak, Gaurko tresnak erabiltzeko aske jakin behar da. Asko ikasi behar da, izadiaren gaitzak sendatzeko.

Baia ote da kultura? Kultura, gizakiak bere izan beharri darama erantzera da; jaitzari, eriotzari, gauzei, geruari, urkoari... egokitze duen era. Eta gizakiak, artu beharra du egokiera bat oiekiko. Baia ar dezakenez egokiera oietatik bat bakarrik du jatorra, berea, berez dakogiena.

Kultura, gizakiak bere burua osatzeko ari duan burrukan adierazten dana dugu. Noski burruka au bikoizta dala: bakarka eta elkartasunaren ematekoa.

—OO—

Teknikak ez du nungotasunik, ez du noizkotasunik; zientzi asmakizun bat berdin-berdina leku eta aldi guzietan. Teknika ikizadia menperatzeari begiraten dio.

Kultura, teknikaren atzaparretan erortzen danean, ez dio gizakiaren askatasunari begiraten. Eta "kultura" izenarekin adierazten duguna zibilizazioa besterik ez da. Eta zibilizazioa eta kultura bi gauza oso ezberdinak ditugu.

Eguneko teknika-zurrubiltu ontan, gizakiaren egokiera bakar luti ematen diogu garrantzia: gauzak edukitzeari. Eta bide ortatik askatasunaren ordez, gizakiaren kaxkartzea datorrigu.

LEPORAINO!

Aste honetan gertatu zaizkit ilaran. Egun batez, ikastola baten ondoan, gurasoak eta ikastolaren bultzatzaileak berak barra-barra erduz ari. Beste batean, eskultzale pare bat harriturik ikusia, geure etxean esukera hutesz egiten dugula jakinda. Hirugarrenik, oso «gogor» horietako baten etxean denak eskaldun gertatu («gogor» hori ezik), eta «gogor» arengatik erderatzen denok. Eta laugarrenik eta azkenik, eskul izena eta asmaoa dituen elkarre bateko biltzarera joan, denak eskaldunak («gogor» horietako bat ezik), eta denok erderaz egin behar. («Gogorra» bera, dukarik gabe, eta ez gu; baia ez uste duen aditek...).

Nork ez du horrelakorik egunero ikusten? Hots, jakina denez, LEPORAINO GAUDE!

Zer da, ordea, eginetara gabe, leporaino gaudea esatea, geure burua kondentzea eta irragirri uztea baizik?

Geure artean geuk ere egiten ditugu erdaldunak lehenengo mailako herrikide, eta eskaldunak gijazio baztergarri. Guhaurk ere, etsairik zitarelak bezalaxe, masailkeo mingarriak ematen dizkiegu egunero eskaldunei. Nor hori daiteke gero, hortaz, prestuki mintzatzekoan bideren, gertatzen ari dena eta onhartzen duguna beste batzuk teoriagisa agertu badute? Gaurko eskaldunok erderaz elkar ulertzen dugula gordinki esan duten horiei, guhaurk erakutsi diegu bidea, praktikan hori egunero geuk erabiliz, eta behin eta berriz eskaldunen artean erderaz mintzaturik ontzat emanez. Errua guhaurk dugu, zuk eta nik biok, eta honek eta harek, eta denok, «gogor» horiek (euskeraren kontrako bermetasunaren ezin gogorra eta abilago) geure artean irribarrez eta erderaz errezibitzen ditugulako. Guhaurk mespretxatzen ditugu eskaldunak horiei sarrera emanez, eta erdaldun bakar batengatik («elkar ulertu beharrez», bai orain salazten berbera...)

hamaik lotzirik gabe erderara jotzen dugun bakoitzean. Zer ari gara soinekoak urratzen? Ez gaitzen faltu izan. Urkabea geu aurrenik; eskaldunak gehien garen biltzarretan,

esukeraz egin behar bait da, zer gerta ere. Eta pozik ez dagoena iruten dedila, eta baketan utz gaitzala.

Frantsesik gabeko Quebec-ik eta flamenkerarik gabeko Flandes-ik ez dagoen bezalaxe, euskerarik gabeko Euskal Herriak ez dago. Hots, guhaurk behar dugu hori nortu eta ubratu geure buruetan. Hau egin artean ez dago ezer itxaroterik geroan, gure amaita ezik. Zeren-eta heburua jokabideak mugatzen eta baldintzen bait du. Zuek, «gogor»-rok, beste gauza «inportanteago»-tan ari zareten erdaltze nazkagarriko, LEPORAINO GAITZUE. Leporaino.

Eskuindarek ez dute hau onhartzen («no estamos de acuerdo con ese extremismo» diote, erdera «extremismo»). Eskuindarek, eta «hay que distinguir la praxis individual de la praxis colectiva» dioteneak, ez dute hori onhartzen. Beti pentsatu izan dute eskuindarek, eta orain gauza bera, herriaren-TZAT jokatu behar dela, eta ez herria-REKIN. Honen ondorioa garbi dago: agintez nagusitu gabe ez dago ezer egite-rik. Egon egin behar artean, Eta gero «gottik» dena konponduko.

Ez da hori, ordea, inun gertatu. Herriarentzat joka ahal izateko, herriaren jokatu behar da hasieratik. Alegia: herriak behar du nahi izan.

Beste hitz batez: ezina da, bai moralaz eta bai kondaira-legez, «gottik» herri bati hizkuntza aldatzea. Asmo hauek geuzura eta tentazioa dira. Lehendabizi nahia dator, nahiaren hazia. Euskal Herria ez da «gero» nahi-ta-nahi-iz eskaldunduko. Euskal Herria barnetik eta beheitik, herriarekin, eskaldunduko da; ala hil egingo da. Aurrenik, beraz, gaurdanik beretik (ez bihar), geure arteko behar dugu eskaldundu; eta gero, legamiak orea bezalaxe, gainerako. Laguntzak laguntza dira. Lehendabizi geure buruetan nortu behar dugu dioguna. Ez dago besterik.

Bere burua eskalduntzat daukana (arago euskaltzale izan nahi duenak) gauza bat egin behar du aurrenik; aurrenik, bai, eta ez bigarrenik edo hirugarrenik; esukeraz jabetu, esukeraz hitzegin eta erde-

ra bere ondokit uxatzeko eran jantzi. Ez dago, ez da egia, premia haundiagorik duen eginkizunik; bere herriarekin hitzagiteko interpretate bat behar duena, arrotz bat da; eta ezin daiteke gurean ez buru eta ez buru-orean, ezpada gurekiko etsaitasunean.

Euskal Herria erderaz, hila litzake; eta, era berean, eskaldunak eta eskal elkarrekin hilak dira erderaz, eta heriotza zabaltzen dute. Hau konprentzen ez dutenez, J. M. Léger quebec-tarraren hitzez esan gogor du: «c'est ne rien comprendre à ce qu'est vraiment une langue et tout ignorer des exigences de la survivance d'une communauté nationale».

Ez hilak bakarrik: hiltzaileak ere bai. Ezen minbiziaren zelula gaitzatek bezala, hedatzen dute horiek ere beren inguruan Euskal Herria suntsiaraz dezakeen gaitza, eta bazterrak oro kutsatzen, lardazkatzen eta hondatzen. Betekizun premia-tzagarri ez du eskultzaleak esukeraz nagusitzea baino. Hau ukatzen dutenak, ordea, geure muintan beretan ditugu maizegi, esukeraren etsaien morroin fin gisa txertaturik.

Ez dago mundu honetan bere etsenpluz mintzo ez den predikaririk. Leporaino gaude, horrengatik.

Okerragorik ere gertatzen da «bilingsuismo». Beren inguruan erdera hutesz mintza-erazten duten «gogor» horiek berak ez dute «bilingsuismo» hitza entzun ere nahi... Eta «bilingsuismo» proposatzen dutenak kondentzea nahi luteke. Nik, ordea, esukeraren etsai gogor hauek kondentzen ditut aurrenik eta lupidarik gabe. Zer esukibide dauka elebiketa gar gutxiesteko eta salatzeako, bere inguruan erdal monolinguisuistik hestuen eta gogorren erabilzen duenak? Ikas dezatela hauek esukeraz lehendabizi; ala joan daitezela pikutara. Ez ditugu behar. Eginak, «praxis» behar dugu.

Gure herriaren zoritxarrez eta esukibideez hitzeginen has ahal izateko, lehen puntua erderaren zabalkunde geure buruan eta geure inguruan arras geldi-araztea. Hau gabe, farsa hutsa da gainerakoa.

Gaiztetan dut neure esperantza bakarra. Zerok, Euskal Alfabetakuntzan ari zarenok, hemengo eta hango eskaldun berriok, ikastole-tatik ateratzen ari zaren eskaldun gazteok, zerok zaretza LEPORAINO gaudenon esperantza bakarra.

Zerongandik espero dugu, bai, aurrerakoan eskaldun ez den aintzindariarik batere gure herrian ez duzuela jasango. Zerongandik espero dugu «gogor» erdaltze horien garbiketa eta betrikotzuntzia. Zerongandik ere honenbeste farsa, faltzakeria eta gezurren amaita. Zerongandik, azkenik, geure kondaira tristetan lehenengo aldi, gutzi eta osoki, esukera mintzaturia eta nortuari oinharritasuna ematea. Ez gara gauza izan lehenagokoak akats larri honi nagusitzeko. Biguneria eta sasi-abilizak nagusi, gorenoko postuetan eta eskaldun izeneko elkarrean erdaltze amorrutuak irentsi ditugu.

Agian zuek ez! Agian zuek izango duzue farragarri utzeko eta probakatzeko aurrerari! Agian halakoekin interpretate bat eskatzeko kemenik! Agian geure elkarrean kokatu zaizkigunak zokoratzeko bihotzik! Agian bai! Agian mila bider!

Guk ez ditugu izan garu arte. Baia leporaino gaitzute. Jakitzue bederen argi-eta-garbi.

LARRSORO

D O N P O L I

Aspalditxo nintzan Don Poli aipatzeko asmotan, etxean ustekabean, 1930 urtean argitaratutako liburuxka bat aurkitu nuenetik hain zuzen. Fray Bartolome, Laramendi, Izteta, Labeyru del, hain ondo ezagutzen zituen gizonak ez ote zuten merezi berak ere aipamenik? Behar bada, nere urte ezak ez dit gaitzunik ematen honelako gizon batez mintzatzeko. Hamalau urte bakarrik dira hil zala, eta perspektiba laburren dugu behar bezain ondo neurteko, joana izanik ez bait da oraindik historia. Makina bat bada, herrian, ni baino egokiago lotuko zitzaizkion zeregin-honi. Hala ere, besterik ezean, hain naizenez gero, barka nere hutsak, eta baldin ezer onuragarriak aurkitzen baduzue, ez neri ezar, hor, hementen, inori jasotakoak dira eta.

Don Poli ez da egia esan, txartel bat erraz erants lezaiokeen gizona, ez eta ere bizi jorita artikulu luzean ere kontatzeko.

Askotan entzun izan dut nere etxean Don Poliren berri, hala ere ez nuen uste oraintsu arte apaiz jator bat baino besterik izan zitekean, herri txikiok apaiz «sinpatikoren» bat edo. Baina zenbat eta gehiago murgildu Don Poliri buruzko arloetan, hainbat eta sakonago eta ugaritsuago aurkitu dut bere biziko oihan mardule. Baina has nadin, poliki poliki, saski naheskerik ez dezegun arma.

Polikarpo Larrañaga Soraluzen (Plautian) joia zan, 1883-g. urtarriak 26 zituela. 1911 urtean Eibarrean etorri zan apaiz eta ez ginduen utzi 1936 arte, Baionara joan zan arte. Don Poli Eibarrea heldu zan garaian ez zituen Elizak gizakietan beregan. Sozialistek alde batetik, eta errepublikanoek bestetik, estu samar hartzen zuten eliza. Kristauek, eliztarrek, erabat kokilduta, larri asko ari ziran edozeinen beldur. Don Poli, sakabanatuak ziran elkarrekin ezekiz, nortasuna eta gorputza

eman zizkien. Hitz batez, gairari zegoen «frente» edo burruko eliza eratu zuten, «extrema-izquierda» eta «amarillo» egondik zeharo bereizitua, eta ondoren kristau, sozialista, errepublikano nahiz beste edozein irizkizentzat «Tribuna Libre» izeneko jardunak eta solasak antolatu zituen Kruzeta Artoetan.

«Solidario» eskaldunekin lan asko egin zuen, eta Eusko Langileen Elkartasunaren buruan «Nekazarien Bazkuna» beronek asmatu eta sortu zuen. Langileen eta nekazarien arazoek gainera, arantzaleekin ere izan zituen harremanak. Herrialde nordikoetara joana zan, bertako arantzala tresna, sistina, bizinodua etab. Ikaste aldera, gero hementen kooperatibak eta prestatzeko asmotan.

Eibarko tailarren nahaste borras-te baitetan ere ez zan geldirik egon. Ameriketako merkatuek izan ohi zuten geldinetan, Madrilan edo edonora jo behar izan zuten ez gutxi-tan, eta elizaren ordezko ezekiz, baita sozialista eta errepublikanoen ordezko ere. Diktadura nagusi zala, eta Martinez Anido zorrotza ministrotzat zegoela, nor eta apaiz bat errepublikanoen ordezko. Ezin zitekean ez, inolaz ere, erdipurdiko gizona izan, ez horixe!

Don Poliren geldirik egon ezin haren izan zuten ondorio ederrik gazte eta umeen artean ere. Antzerki talde bat eratu zuten, «Izerra» fobalduko ekipoa aurrera bultzatu, «poxpoliak» kantari eta dantzari taldeak gertutu, eta aipatutako egiteko guztiekin solako eta iaialdiak herriari eskaini.

Zeregin guzti hauek ez bide zizkieten murrizten apaizorari dagokien funtsezko eginbeharrak. Don Mateo Mujika, hiru probintzietako azken gotzia zanaren eskuin esku omen zan, eta zenbaitetik diotenez, behar bada zentzu bihurritz, ezker eskuia ere.

Hizlari trebea, zuzen zuzena, bel-

dur gabekoa, «plautianarra». Galde-tu dudun nonahi erantzun berdina jaso izan dut, hots, «Postkon-zilioko apaiza zan». Ez da gutti esatea orain hirurogi urteko apaiz batetz. Arrateko Amaren koronazioan lan asko egin. Beronek moldatua da oraindik ere garu egun erabiltzen den Arrateko Amaren Bederatziurrena, gaztelar nahiz euskeraz.

Idazle fina, «Euzkadi», «El Dia», «Argia» eta «Yakintza» Aldizkarietan sarri asko argitaratu ziren bere lanak. Horrez gainera baditu hiru hitzaldi, ondoren argitaratu zituenak. Hauetariko bi, «Arrate» zerritatzenak, «Euskal Etnoleak» prestatutako hitzaldiak sortzen argitaratu ziran, 1926 urtean. Hirugarrena, berriz, «Costumbres y Vestimenta Vascas» izeneko, Euskalerriko Txistuleri Elkartearen babesean argitaratu zan, 1930 urtean.

Edugu besterik Don Poliz Zenbat eibartarrek, eskaldun orok ere, ezagutzen dute Don Poli musikalarik bezala? Nork esango luke euskal opera baten egile dugula, 1923 urtean Eibarren lehen aldi arkerutzu zan operaren egile hain zuzen, «Amets Larri» izenekoa? Eta opera bat ezekiz, «Mendiko Eguna» deritzen bi ekitalditeko zarzuela bat egin zuten 1921 urtean, «Euskal Etnoleak» eratuako txapelketan sartuta.

Esanak esan, ez dugu erraz emaituko Don Polirekin, hain ugaritsu zana! Hala ere, Eibartik alde egiteko ordu heldu zitzaion berak uste izan zuten baino lehenago, eta joate honen amaitu zan eibartar gehienentzat Don Poliren itzal marrazta, Euzkadi ez guztizant, ez horixe, zorionez.

Berogei-ta-emoiru urte zituen Don Poli Baionara zanean. Eta han ere hala eta guztiz ere, Don Polik ez zuten ibei zabalote galdieran joera hartu, erreketxo bizkor, garbi eta argitsuarena baino,

apaizgai ameslariena bailitza. Hain zuzen, Baionan Don Poli ezagutu zutenengandik jakin dudenez, giza-tasuna mailaz behintzat, ordurarte egin zuena gutti baino ez omen izan ipar aldean egin zuenaz gonbaratzu, orduantxe irixi omen zan bere izate osoturaino, orduantze izan omen zan inoiz ez bestean DON POLI.

Muga iragan behar izan zutenen babes, ardigalduen artzai, ezjakinen gidari, behartsuen laguntzaile eta guztien argi.

Era honetan, gerra bat amaitu eta beste bat hasi, Frantziar barna bigarren hau, hazi ere. Gertatzen honak ez zion lasaitasunik eskaini Don Poli. Lehen estu eta larri baziharduen, ere gehiago Frantziar berean gerra zanetik. Agirik gordeleku zana, ezkutu leku bihurtu zan. «Resistance» dalakoaren laguntzaile eta «alkaute». Plautianxioko zuloan esango zutenez, herriaren eragile eta albistari paregabea. Irati kaskar bat omen zuten etxean, eta hartaz nola edo hala balaitzen ziran Londoneko B.B.C. emisionaren albisteak entzuteko, gero ingurukoie jakineraz ahal izateko.

Amaitu ezindako berrieta dugu Don Poliri buruz, hala ere oraingoz nahikoa deritatz. Begoz lerro kozkor hauek Don Poli haundiaren orioigarri txikitatz. Ni bezalako gazterren bati, Don Poli ahaztua ezagutzeko balio izan badio ez da izan inolaz ere alferriko lana. 1956 urtean hil zan «L'Embassadeur de la Charité». Elizkizunetan bazen jenderik. Ohi ez denez, Baionako Apezpikua mintzatu zan meza hartan Don Poliz, ez bait zan beraz ere ohizko apaiza. Elizamak, tarteka marteka sortzen danetariko apaiz bat galdu zuen, Euskalerriak urri baino urriago dugun «txapel haundia».

AMATINO



ARGIA

Zuzendaria:

MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Argitaratzailea:

Nafarroako-Kantauriko ta Aragoiko Kaputxinoak. (Mayor, 50-1.º - Burlada Pamplona).

DONOSTIAN:

Quendo, 22 - Tel. 26666.